



Hitzaurre gisa

Belen Uranga

Soziolinguistika Klusterra

b.uranga@soziolinguistika.org



Aurtengo urtarrilean burutu ziren Donostian *Lurraldea eta Hizkuntza. Hizkuntza eta Lurraldea* izenburupeko I. Jardunaldiak, Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, UEMAk eta Udako Euskal Unibertsitateak elkarlanean antolatuta. Soziolinguistikak aspaldi erakutsi duen moduan, eta jardunaldian bertan argi ikusi zenez, lurraldearen antolamenduak lur hori bizi duen komunitatearen hizkuntzaren erabileraren

gainean badu eraginik. Ikuspegi soziolinguistikotik berezi ohi ditugu gertakariak, esate baterako, gertakari horien lurraldeak gehienbat hiritarrak edo landakoak diren begiratzuz, komunikazio-bide garatuak dituzten edo populazioa bakartu samarrean bizi den; pertsonen arteko harremanetan sakontzeko diseinatutako lurraren antolakuntza nagusitzen den edo norbanakoaren eremu pribatua lehenesten den. Bestalde, ikuspegi zabalago batetik hartuta, esan daiteke lurraldearen antolamendua mugimendu demografikoari emaniko erantzuna izan daitekeela, edo, alderantziz, antolamendu edo plangintzek eragiten dituztela mugimendu demografikoak.

Lurralde-antolamendu aratuak komunitatearen lurraren inguruan betebeharrak edo mugak ezartzen ditu, edota garatzeko esparruak arautzen. Horrez gain, gizartearen alderdi ez-fisikoengan ere eragina du, nahiz eta eragin hori deskribatzea edo ebaluatzea eginkizun nabarmen zailagoa den. Zein da antolamendu-modu bat edo bestea lehenestek komuni-

tatearengan duen eragina kultura-esparruan, gizarte-harremanean, edo bertako hizkuntzaren bizitasunean?

BAT Aldizkariko zenbaki honek gaurkotasun eta interes handia sortzen ari den gai honi heldu nahi izan dio, eta jardunaldi horietan egindako ahaleginaren erakusleho izan. Ahalegin horretan laguntzaile izan direnei eskerrak eman nahi dizkiegu, batez ere, Kontseiluko lagunei, zenbaki hau egiteko emandako laguntzagatik.

Hasiera emateko gaiari **Unai Fernandez de Betoño** irakasleak marko orokorra kokatu du. Berak dioen moduan hizkuntzalaritzatik —esango genuke soziolinguistikatik— hizkuntza-politikaren lurralde-ikuspegia gero eta gehiago aldarrikatzen ari den arren, hirigintzatik, ordea, ez da oraindik kontuan hartzen hasi. Bere ustez, esparru honetan ere hizkuntza-ikuspegia txertatzea beharrezkoa da etxebizitza eta azpiegitura kopurua aurreikusterakoan, euskara bezalako hizkuntza minorizatuek osasuntsu biziraungo badute. Gaia da hainbat egilek aldarrikatzen duten garapen sozioekonomiko arduratsu eta iraunkor berri horretan ezin dela alboratu berezko hizkuntza eta hizkuntza-komunitatea.

Koldo Telleriak pentsamendu ekologikotik eta E. Morinen konplexutasunaren teoria oinarri hartuta esku-hartze praktikoa baten berri ematen du *Lurralde bat; hainbat hizkuntza, hainbat modu* artikuluan. Lurralde-antolakuntza erabakitzeko impli-

katuta dagoen komunitatearen parte-hartze sistematizatua jarri dute abian Zaldibarko Hirigintza Araudiaren Plan Orokorra idazterakoan. Interbentzioa ikerketa parte-hartzaile modura ere planteatu da, eta horrela lanaren ondorioak aurkezten ditu artikuluan; hirigintzan erabakitze-boterea herritarrekin elkarbanatzean eginiko ikerketaren markoa azaltzen da eta bertatik ateratako ondorio eta etorkizuneko ikerketarako lan-lerroak aurkezten dira artikuluan. Hizkuntza ezberdinek osatzen dituzten sozio ekosistemek lurralde berberarekin dituzten hartu eman eta egiteko modu ezberdinak.

Euskara toki garapenean, gonbidatu gabeko protagonista du izenburu **Eñaut Apaolazak** idatzitako artikulua. Hizkuntzaren berreskurapen-prozesuak toki-garapenari egin diezaiokeen ekarpenaz idazten du, eta baita —alderantziz— toki-garapenak hizkuntza berreskurapenari egin diezaiokeenaz ere. Prozesu horretan, gizarte-eragileek bete beharreko funtzioak zein direnari buruzko ideiak ere eman ditu. Egileak

gero eta esperientzia praktiko gehiago aurkitzen ditu, behintzat Europan, eta horrek nolabaiteko sistematizazioaren beharra azpimarratzera darama. Izan ere, “gurea bezalako lurraldeetan (industrializatuak eta konparatiboki aberatsak) garapenaren alderdi kuantitatiboek baino kualitatiboek dute garrantzia”.

Iker Salaberria Kontseiluko teknikariak heldu dio gaiaren alderdi zehatz honi, hau da, arnagune modura jada zabaltzen ari den udalerrri euskaldunen kasuetara. Duela lau urte Kontseiluak abian jarritako hausnarketarako lan-taldean eginiko hausnarketaren emaitza aurkezten du artikuluan. Lan-talde horretan Bertsozale Elkarteak, EHEek, EMUNek, Euskaltzaleen Topaguneka eta UEMAK parte hartu zuten eta helburua izan da gaiari ahalik eta modu zorrotzenez eta ausartuenez heltzea

Sarrera honetan aipatu dugun *Lurraldea eta Hizkuntza. Hizkuntza eta Lurraldea* Jardunaldian gonbidatuak izan ziren nazioarteko hainbat aditu, eta horien ekarpena aztertu du **Paul Bilbaok** bere artikuluan. Euskal Herria bezalako egoeran dauden beste hizkuntza-komunitate batzuen errealitatea ezagutzeko oso interesgarria da, nahiz eta jakin hizkuntzaren berreskuratze-prozesu bakoitza desberdina dela; eta horregatik aztertu ditu Åland Uharteetako kasua, Flandriakoa eta Galesekkoa.

Zenbakia osatzeko GUREAN atalean gai desberdineko bi artikulua ekarri ditugu, biak 2013ko edizioan HAUSNARTU sarietan parte hartu zuten lanetan oinarritutakoak; orain, artikulua modura ekarri nahi izan ditugu hona.

Horietako lehenean **Beñat Urikizak** *Lurralde eta ikastetxe desberdinetako euskararen erabileraren datuen hausnarketa eta konparaketa* izenburupean hizkuntza-ohituretan aldaketan eragitearen zailtasunaren inguruan idatzi du. Bere lanaren sorburua honako hiru galdera hautetan kokatu du: Zergatik aldatu hizkuntz jokabidea eta euskaraz bizitzen saiatu? Zer gaitasun landu behar dira prozesua arrakastatsua izan dadin? Zer oinarri teoriko eta metodologiko erabil daitezke norberaren euskararen erabilera-

marka hobetzeko? Eta honelako erantzunak proposatzen ditu: a) Euskaraz bizitzeko motibazioa indartsuagoa da norberaren asmo transzendentetan eta balioetan oinarritzen denean; b) Prozesuaren arrakasta bermatzeko beharrezko dira gaitasun emozionalak lantzea, norik bere buruaren ezagutzan sakontzea, huts egitekin ikastea, eta euskararen gaineko aurreiritziak zalantzan jartzea eta c) Emaitza hobekia lortzen dira elkarlanean arituta, eta enpatia eta konfiantzatik abiatuta, hizkuntz gatazkaren paradigma erabili baina.

Amaitzeko *Gernika-Lumoko euskararen aldakortasuna: aldagai fonetiko zenbait* artikulua idatzi du Ariane Ensunzak bere ikerketa-lanaren berri emateko. Ikerketa honek erakutsi nahi du euskara ez dela kasu isolatu bat munduan; bizirik dagoen hizkuntza denez, denboran zehar aldatzeaz gain, egunerokotasunean ere aldatzen ari direla. Horretarako, Gernika-Lumon hitz egiten den euskararen aldaera aztertu du. Zehazkiago, aldakortasuna erakusten duten 6 hizkuntza-aldagai aztertu ditu eta horiek hainbat gizarte faktoreekin duten harremana ikertu; hau da, adina, generoa, gurasoen jatorria eta ikasketa-zentroa. •